

## AURTEN ERE, UDALEKUAK!!

"Euskaraz Blai" eta "Kontrabandistak" udalekuak abian dira. Gure seme-alabek hain beharrezko duten bizipen eder hori aurten ere seguritate osoaz garatuko da. Arantzako ATERPE eta Beintza-ORBELA aterpetxeek zein hezitzaile eta begiraleen taldeak lan **experientzia handia** hartu dute:



**UDALEKUAK 2020:** udan antolatutako 10 txandetan 250 haurrek eta gaztek parte hartu zuten. Osasun Agintaritzak ezarritako protokoloak bete eta egonaldiak inongo arazorik gabe eta berme osoz garatu ziren.



**EUSKARAZ JOLAS ETA SOLAS:** Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak sustaturiko proiektu honetan, gure hezitzaileek hainbat ikastetxetan euskararen erabilpena sustatzeko jarduerak garatzen dituzte bertako ikasleekin. Udazkeneko kanpainan 19 ikastetxek (ia 1.100 ikasle) eta 2021eko hasieran zehar bertze 22 ikastetxek parte hartuko dute.